ANIMALIAK EZAGUTZEN

BASERRIKO ANIMALIAK

ARDIA

BEHIA

KATUA

POTTOKA

TXERRIA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

ARDIA

KAIXO, ARDIA NAIZ.

Tamaina ertaineko animalia naiz. Ni beltza naiz. Nire familian badira zuriak direnak ere. Behin batean, paseotxo bat ematen ardi batzuekin topo egin nuen eta badakizue zer? Ardi basatiak, gizakiekin bizi ez direnak, marroiak dira.
Belarri handi eroriak ditut eta entzumen bikaina. Nire begiekin hainbat kolore bereizteko gai naiz: beltza, gorria, marroia, berdea, horia eta zuria. Beste kolore batzuk, ordea, ezin ditut ikusi: morea, laranja edo arrosa adibidez. Ile kizkurra dut. Gizakiek nire ileari artilea deitzen diote eta arropa egiteko erabiltzen dute. Nik ez dut adarrik, baina beste familietako ardi askok badituzte eta arrenak benetan ikusgarriak dira batzuetan.

ELIKADURA ETA OHITURAK

Belarra jatea pila gustatzen zait. Denbora asko ematen dut belarra ondo-ondo murtxikatzen. Taldekoia naiz, nire familia eta lagunekin egotea gustatzen zait. Bakarrik geratzen banaiz oso urduri jartzen naiz. Horregatik, gutako bat mugitzen denean, beste guztiek jarraitu egiten diogu azkar-azkar.

GIZAKIAK ETA NI

Euskal Herrian gutako familia ugari bizi gara. Agian gure izenak entzun dituzu: latxa, karrantzakoa edo sasia beste askoren artean. Hemengo gizakiek nire esnea hartzen dute. Horrekin gaztak eta postre ezberdin asko egiten dituzte: jogurta, mamia edo izokiak, adibidez.

Hara begira! Nire familia badoa. Beraiekin noa ba.

AZKEN GALDERAK

Probatu al duzu inoz ardi esnearekin egindako jogurta edo izozkia?

Hurrengora arte, agur.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

BEHIA

KAIXO, BEHIA NAIZ.

Baserri batean jaio nintzen. Txahal gazte eta kementsua izan nintzen behi heldu bihurtu aurretik.
Ugaztun handia naiz, pisutsua eta sendoa. Lau hanka ditut, buztan luzea eta buru handia. Adar luze eta zorrotzak ditut. Ile motza daukat. Ile luze-luzea duten senideak baditut. Nire ilea marroia da, baina besteena beltza, zuria edota marroi desberdinetakoa izan daiteke. Batzuek orbanak badituzte ere.

GAITASUNAK ETA ELIKADURA

Usaimena eta entzumena oso garatuak ditut. Eta begiak aurrean izan beharrean, alboetan ditudanez, gizakiak baino askoz ere gehiago ikusten dut. Horrela, nire atzean dagoena ikusi dezaket ia burua mugitu gabe. Belarjalea naiz eta egunean zortzi ordu ematen ditut elikatzen. Landan belarra jaten egotea atsegin dut.
Ni emea naiz eta esnea ematen dut. Arra zezena deritzo eta ez du esnerik ematen. Zezena gauza pisutsuak garraiatzeko erabili izan dute gizakiek. Euskal Herrian adibidez, idi proba herri kirola da. Idiek, denbora mugatu batean, probarria ahalik eta urrutien eraman behar dute.

NI ETA GIZAKIAK

Ia mundu osoko baserri edo abeltegietan bizi gara. Gizakiak duela milaka urte hasi ziren gurekin bizitzen. Gure esnearekin gauza asko egin dituzte: jogurtak, gaztak, gurina edo izozkiak, besteak beste. Betizu arraza da Euskal Herriko behi arrazarik ezagunenetako bat. Ikusi duzu inoz horrelakorik?

Beno ba, belar freskoa usaintzen dut hor aurrean, nire gogokoena, agur!

AZKEN GALDERAK

Zein behi mota gustatzen zaizu gehien, ile laburrekoa ala ile luzekoa?
Behiak bezala, usaimen garatua duzu zuk?
Entzumena? Agian ikusmena?

Hurrengora arte, agur.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

KATUA

KAIXO, KATUA NAIZ.

Etxe katua ondo esanda, gizakiekin bizi naizena.
Ugaztunen artean, txikia naiz. Noski ni baino txikiagoak diren bestelako animaliak badira, baita ni baino askoz handiagoak direnak ere. Baina baserriko beste animalien aldean txikia naiz. Zaldia, behia, txerria edo txakurra ni baino handiagoak dira. Eta hala ere, animalia azkarra naiz, usaimen, entzumen da ikusmen garatuekin, beraz ehiztari aparta.

ITXURA ETA OHITURAK

Lau hanka ditut, begi txikiak eta iletsua den buztan luzea. Beste felidoak bezala atzapar luzeak ditut, gorputz indartsua eta malgutasun garatua, erreflexu handiekin. Horregatik, batzuetan nire mugimenduak ia ikustezinak dira gizakientzat.
Lasai egoeta gustatzen zait. Eta deskantsatzeko beharra dut. Horrela, egunaren zati handi batean lo nago.

NIRE EMOZIOAK ADIERAZTEN

Gizakiek nire ahotsari marruka edo miuka esaten diote. Hala ere, nire sentimentuak adierazteko belarriak erabiltzen ditut. Lasai banago, belarriak tente ditut; alboetara okertutak baditut, mmmm... haserre nago. Eta belarriak beherantz eta atzera ditudanean, beldur naizela esan nahi du.
Animalia haragilajela naiz. Baserrietan oso lagungarria naiz saguak ehiztatzen.

Baina orain deskantsatzeko ordua dut. Pixkatxo bat etzango naiz. Aguuuur.

AZKEN GALDERAK

Katuak belarriak atzerantz jartzen ditu, eta zuk, nola adierazten duzu beldur zarela?
Ezagutu duzu inoz etxe-katuren bat? Nola zuen izena?

Hurrengora arte, agur.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

POTTOKA

KAIXO, POTTOKA NAIZ.

Euskal Herrian jaio nintzen, haimaka hilabete amaren sabelan eman ondoren. Nire tamaina ertaina denez, ponia naizela diote gizakiek. Lau hanka eta buztan luze iletsua ditut. Ni marroi iluna naiz, baina nire familian badira beltzak direnak ere. Sudur-zulo zabal eta ezpain lodiak ditut. Kalpatsa luzea dut buruan, begietara erortzen zaidana. Nire lepoa sendoa, luzea eta indartsua da eta nire belarriak mugikorrak, triangelu formakoak. Begi txikiak eta ilunak ditut. Berrehun kilogramo inguruko pisua dut.

IZENAK ETA OHITURAK

Ni bizi naizen eremuan pottoka esaten didate. Baina beste leku batzuetan izen ezberdinak jasotzen ditut: ordunteko behorra, xamalko, basa-behorra, zaldi ttikiak edo potxa, besteak beste. Landa eremuetan bizitzea gustatzen zait, irakin freskoa jan ahal izateko. Basoetan paseatzea ere gustatzen zait.

IRAGANA ETA ETORKIZUNA

Nire arbasoak duela milaka urtetik bizi izan dira lur honetan modu basatian, gizakiek hezi zituzten arte. Haien marrazki ugari agertu dira Euskal Herriko hainbat leizetan. Adibidez, Ekaingo leizean daudenak. Hauek oso ezagunak dira!
Gero eta pottoka gutxiago gara, hau da, desagertzeko prozesuan gaude. Azken urteetan ordea, Euskal Herriko zenbait tokitan arraza babesteko ekimenak abiatu dira. Benetan espero dugu gero eta pottoka gehiago ikustea gure landa eta basoetan lasai-lasai jaten edo paseatzen.

AZKEN GALDERAK

Bazenekien pottokaren arbasoen marrazkiak badirela hainbat leizetan?
Ikusi al duzu inoz pottoka bat?

Hurrengora arte, agur.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

TXERRIA

KAIXO, TXERRIA NAIZ.

Euskal Herriko baserri batean jaio nintzen. Hemengo gizakiek txerri, txarri, zerri edo urde izenak eman dizkidate. Nire jatorria orain dela hamar mila urte inguruan izan zela diote. Orduan izan zen gizakiek txerri basatiak etxekotzen hasi zirenean, abere bihurtuz. Baina badakizue zeintzuk diren urde basatiak? Basurdeak! Ugaztuna naiz. Baserriko animalien artean tamaina ertainakoa, behia baino txikiagoa, oiloa baino handiagoa. Bi begi txiki ditut, belarri handiak eta sudur zabala. Oso usaimen ona dut, horregatik leku askotan trufak aurkitzeko erabiltzen naute gizakiek. Nire ilea oso lodia da, zerda izenarekin ezagutzen da eta antzinean eskuilak egiteko erabiltzen zen.

ZERRI URDEA!

Goi-guruina ez duen ugaztun bakarra naiz, hau da, ezin dut nire gorputzaren tenperatura moldatu beharretara. Horregatik bustitzen naiz sarritan, bereziki bero egiten duenean. Ez banaiz nahikoa bustitzen nire azala gaiztotu daiteke. Eta gizakientzat hori naskagarria denez, zikina den pertsonei "zerri urdea!" esaten diete. Mundu osoan zabalduta nago. Baina gehienetan klima epeletan aurkituko nauzu. Euskal Herritik kanpo hainbat txerri-arraza daude, horietatik ezagunenetakoa Vietnamgo txerria da. Iberiar txerria ere oso ezaguna da.

NIRE ELIKAGAI, ZUEN ELIKAGAI

Animalia orojalea naiz, hau da, denetik jaten dut. Baserrietan ohikoa da artoa, arroza, garia, garagarra edo erraz lor daitekeen beste edozein elikagai ematea. Nire haragia hainbat txerrikiak egiteko erabiltzen dute gizakiek, txorizoa, magra edo urdaiazpiko gozoa besteak beste. Aintzinean giza familiak eta auzokideak San Martin egunean elkartzen ziren. Neguari etorria emateko txerri bat hiltzen zuten eta bere haragiarekin baserriko biltegia betetzen zuten. Ondoren denek elkarrekin otordua egitea zuten ohitura.
Beno ba, nire San Martina heldu baino lehen, ni banoa lokatzan jolastera, agur!

AZKEN GALDERAK

Ikusi duzu inoz txerri bat? Noiz eta non ikusi zenuen? Gauregun San Martin eguna ia ospatzen ez bada ere, badakizu zein beste egunetan txerria hirietara eramateko ohitura dagoen?

Hurrengora arte, agur!

ANIMALIAK EZAGUTZEN

BASERRIKO ANIMALIAK

GALDERAK

Konta Kontari

ANIMALIAK EZAGUTZEN

ARDIA

A) ZER TAMAINAKO ANIMALIA NAIZ?

1. TXIKIA
2. ERTAINA
3. HANDIA
4. ERRALDOIA

B) NIRE ELIKADURARI DAGOKIONEZ, ZER ANIMALIA MOTA NAIZ?

1. HARAGIJALEA
2. BELARJALEA
3. INTSEKTUJALEA
4. OROJALEA

C) ZEIN KOLORETAKOAK DIRA ARDI BASATIAK?

1. ZURIAK
2. BELTZAK
3. GRISAK
4. MARROIAK

D) ITXURA ETA GAITASUNEI DAGOKIONEZ... ZEIN DA EGIA?

1. ARREK EZ DUTE ADARRIK
2. KOLORE GUZTIAK BEREIZTEN DITUT
3. ILE KIZKURRA DUT
4. BELARRI TXIKI ERORIAK DITUT

E) ESALDI HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?

1. ENTZUMEN BIKAINA DUT
2. LATXA DA EUSKAL HERRIKO ARDI ESPEZIE BAKARRA
3. ANIMALIA BAKARTIA NAIZ
4. AZKARRA NAIZ JANARIA MURTXIKATZEN

F) HEMENGO GIZAKIEK...

1. NIRE HARAGIA JATEN DUTE.
2. NIRE ILEAREKIN ESKUILAK EGITEN DITUZTE.
3. NIRE ESNEAREKIN POSTRE EZBERDIN EGITEN DITUZTE.
4. NIRE ADARREKIN TRESNAK EGITEN DITUZTE.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

BEHIA

A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. UGAZTUNA
2. NARRASTARIA
3. HEGAZTIA
4. ARRAINA

B) NIRE ITXURARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA GEZURRA?

1. ILE LUZEA ZEIN MOTZA DUTEN BEHIAK BADIRA
2. BADIRA ORBANAK DITUZTEN BEHIAK
3. BUZTAN MOTZA DUT
4. ADAR LUZEAK DITUT

C) NIRE ELIKADURARI DAGOKIONEZ...

1. HARAGIJALEA NAIZ.
2. BELARJALEA NAIZ.
3. INTSEKTUJALEA NAIZ.
4. OROJALEA NAIZ.

D) ZERTARAKO ERABILI IZAN DIRA BEHI ARRAK (ZEZENAK)?

1. ESNEA EMATEKO
2. BERE ILEA ERABILTZEN DA ARROPA EGITEKO
3. BERE HARAGIAREKIN HESTEKIAK EGITEKO
4. ZAMA PISUTSUAK GARRAIATZEKO

E) ESAN ESALDI HAUEK EGIA ALA GEZURRA DIREN:

1. USAIMEN GARATUA DAUKAT
2. EGUNERO BI ORDU EMATEN DITUT JATEN
3. ESNEA EMATEN DUT
4. BEHI GAZTEAK BILDOTS DERITZO

F) EUSKAL HERRIAN...

1. LATXA ARRAZA DA EZAGUNA.
2. IDI PROBAK OSPATZEN DIRA.
3. MODU BASATIAN BIZI GARA.
4. EZ DUTE NIRE ESNEA ERABILTZEN.

ANIMALIAK EZAGUTZEN

KATUA

A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. UGAZTUNA
2. NARRASTARIA
3. HEGAZTIA
4. ANFIBIOA

B) BASERRIKO ANIMALIEN ARTEAN...

1. TXIKIA NAIZ.
2. ERTAINA NAIZ.
3. HANDIA NAIZ.
4. ERRALDOIA NAIZ.

C) BESTE FELIDOAK BEZALA... ZEIN DA GEZURRA?

1. BUZTAN LUZEA DUT
2. MALGUTASUN GARATUA DUT
3. ATZAPAR MOTZAK DITUT
4. ERREFLEXU HANDIAK DITUT

D) ZENTZU GARATUAK DITUT, ZEIN IZAN EZIK?

1. USAIMENA
2. DASTAMENA
3. IKUSMENA
4. ENTZUMENA

E) BELARRIAK TENTE DITUDANEAN...

1. HASERRE NAGO.
2. BELDUR NAIZ.
3. TRISTE NAGO.
4. LASAI NAGO.

F) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK.

1. ANIMALIA BASATIA NAIZ
2. NIRE AHOTSARI MARRUKA ESATEN ZAIO
3. EGUNAREN ZATI HANDI BATEAN LO NAGO
4. BELARJALEA NAIZ

ANIMALIAK EZAGUTZEN

POTTOKA

A) ZER TAMAINAKO ANIMALIA NAIZ?

1. TXIKIA
2. ERTAINA
3. HANDIA
4. ERRALDOIA

B) NOLAKO NAIZ?

1. SUDUR-ZULO TXIKIAK DITUT
2. LEPO MEHE ETA AHULA DUT
3. KALPATSA LUZEA DUT BURUAN
4. BELARRI BOROBILAK DITUT

C) ZEIN BESTE IZEN JASOTZEN DUT? BOROBILDU GEZURRA DEN ERANTZUNA

1. TXEKORRA
2. ZALDI TTIKIA
3. BASA-BEHORRA
4. XAMALKO

D) ZER JATEN DUT?

1. INTSEKTU TXIKIAK
2. BASOKO ANIMALIA TXIKIAK
3. DENETIK
4. IRAKIN FRESKOA

E) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK: ANTZINATEKO NIRE ARBASOAK...

1. MODU BASATIAN BIZI ZIREN.
2. BERE JATORRIA OSO URRUTI IZAN ZEN.
3. HAIEN MARRAZKIAK AGERTU DIRA LEIZETAN.
4. GIZAKIEKIN BIZI ZIREN LEIZEETAN.

F) ZEIN DA GURE GAUR EGUNGO EGOERA?

1. GERO ETA POTTOKA GEHIAGO GARA
2. GURE EGOERA EZ DAGO ARRISKUAN
3. GERO ETA POTTOKA GUTXIAGO GARA
4. GUTXI BARRU GUZTIZ DESAGERTUKO GARA

ANIMALIAK EZAGUTZEN

TXERRIA

A) ZEIN IZEN EZ DUT JASOTZEN?

1. TXARRI
2. ZERRI
3. TXAHAL
4. URDE

B) NOIZ IZAN ZEN NIRE JATORRIA?

1. ORAIN DELA EHUN URTE
2. ORAIN DELA MILA URTE
3. ORAN DELA HAMAR MILA URTE
4. ORAIN DELA EHUN MILA URTE

C) NIRE ELIKADURARI DAGOKIONEZ...

1. HARAGIJALEA NAIZ.
2. BELARJALEA NAIZ.
3. INTSEKTUJALEA NAIZ.
4. OROJALEA NAIZ.

D) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. UGAZTUNA
2. NARRASTARIA
3. HEGAZTIA
4. ANFIBIOA

E) ZEIN DA GEZURRA?

1. BASURDEAK TXERRI BASATIAK DIRA
2. NIRE GOI-GURUINAK GORPUTZAREN TENPERATURA MOLDATZEKO BALIO DIT
3. NIRE ILEA ZERDA DERITZO
4. GEHIENETAN KLIMA EPELETAN AURKITUKO NAUZU

F) NOLAKO NAIZ? BOROBILDU EGIA DIREN ESALDIAK:

1. BELARRI TXIKIAK DITUT
2. BEGI HANDIAK DITUT
3. OSO USAIMEN ONA DUT
4. TAMAINA ERTAINEKOA NAIZ

ANIMALIAK EZAGUTZEN
BASERRIKO ANIMALIAK

ERANTZUNAK

ARDIA	A) 2	B) 2	C) 4	D) 3	E) 1	F) 3
BEHIA	A) 1	B) 3	C) 2	D) 4	E) E/G/E/G	F) 2
KATUA	A) 2	B) 1	C) 3	D) 2	E) 4	F) 2,3
POTTOKA	A) 2	B) 3	C) 1	D) 4	E) 1,3	F) 3
TXERRIA	A) 3	B) 3	C) 4	D) 1	E) 2	F) 3,4

ANIMALIAK EZAGUTZEN
BASERRIKO ANIMALIAK

ESTEKAK

ARDIA

https://youtu.be/ef_bkJqEDdE

BEHIA

https://youtu.be/2n-6uMKC5Ho

KATUA

https://youtu.be/SbC5cdS5BTY

POTTOKA

https://youtu.be/6OthPrscE80

TXERRIA

https://youtu.be/uB1RNYK86HY

Konta Kontari